

SANTA EUFEMIA AZOKA – 2019

ONDARE PUBLIKOAREN ERABILERAKO BAIMENA

Baldintza honeen helburua, Bermeoko Santa Eufemia azokako postuen erabilera eta funtzionamendua erregulatzea da. Udalak, ondare publikoaren erabilera baimenduko dau.

BALDINTZA OROKORRAK

1. Santa Eufemia azoka, 2019ko irailaren 16ko goizeko 10:00etatik eguerdiko 03:00retara arte zabalik egongo da.
2. Autoak, goizeko 08:00etatik 09:30etara sartuko dira Lamerara zama-deskarga lanak egiteko. Eta azokaren amaieran, arratsaldeko 03:00etatik 04:30era.
3. Ekoizleek eurek egindako produktuak salduko dabez, eskaeran adierazitakoak. Eta produktuen ardura osoa hartuko dabe.
4. Ekoizleak, antolatzaileak adierazitako postuan kokatuko dira eta titularra edo berak izendatutako pertsona, postuan egon beharko dau.
5. Eragiten deutesen legeak eta sektore-araudiak bete behar dira, batez be higienerari, osasunari eta segurtasunari buruzkoak.
6. Ekoizleek hozkailuak eukiko dabez, euren produktuak hotzean mantendu behar diranean, adibidez, txerrikiak.
7. Salmentan jartzen diran produktuen prezioak ondo ikusteko moduko karteletan azalduko dira.

AZOKAKO POSTUAK

1. Eskatzaile guztiak, Alaiki enpresan izena emon behar dabe, parte hartzeko, abuztuaren 26ra arte, 14:00etan. Izena emoteko eransten dan legez agertzen dan **eskabidea** eta **zinpeko aitortpena** sinatuta beteko dabe eta postaz edo emailaz (elektronikoki sinatuta) aurkeztuko dabe.

(Alaiki-Igeltzera enpresa parkea- Barrikako bidea, 2 - D4 pabilioia -48610 URDULIZ – Telf.: 607592960 – eposta: azoka@alaiki.eus)

2. Postu bakoitzean, produktu bakarra (mota bakoitzeko) salduko da, baimenagaz bi, baina ez gehiago.

3. Kremak ezin dira saldu, Foru Aldundiaren arauaren arabera: “Produktu fitosanitarioen, azoka eta merkatuen eta ortu ludikoen informazio, zaintza eta erabilera plana”.



4. Santa Eufemia eguneko azokan, honako produktu honeen postuak jarriko dira: gazta (gehienez 8), ogia eta pastelak (gehienez 6), ortuariak (gehienez 5), txerriak (gehienez 3), txakolina (gehienez 6), pateak (gehienez 3), ezta (gehienez 3) fruta (gehienez 2), eta beste batzuk.

ERISPIDEAK

Postuak esleitzeko ondorengo erizpideak erabiliko dira:

a. Kilometro 0-ko produktoreak : gehienez, 15 puntu

- Herriko produktoreak: 15 puntu
- Busturialdeko produktoreak: 12 puntu
- Bizkaiko produktoreak: 10 puntu
- Euskal Herriko produktoreak: 5 puntu

b. Kalitatea: gehienez, 5 puntu

- Eusko Labela, Bizkaiko sagardoa, Bizkaiko txakolina, D.O. Idiazabal, produktu ekologikoak edo besteren bat: 5 puntu

c. Sariak: gehienez, 15 puntu

2015 urtetik aurrera lortutako sariak:

- Euskal Herriko txapelketak: 3 puntu
- Eskualdeko txapelketak: 2 puntu
- Herrietako txapelketak: puntu 1

d. Bermeoko azokan edota Bermeoko azoka berezietan parte hartzea: gehienez, 20 puntu arte

- Astero parte hartzea: 10 puntu
- Azoka berezietan parte hartzea azken bi urteetan: 5 puntu urte bakotxeko

KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio mahaia kide honeek osatuko da:

Lehendakaria: Idoia Platas Arenaza and., Ekonomiako zinegotzi delegatua (bere ordez, Aritz Abaroa Cantauriense jn.)

Kideak: Jurdana Uriarte Lejarraga and., Udaleko idazkari orokorra (bere ordez, Karmele Muñoa Arrigain and.), Edurne Urrutia Uriarte and., Udal kontu hartzailea (bere ordez, Idurre Basterretxea Altonaga and.), Karmele Muñoa Arrigain and., Administrazio Orokorreko teknikaria (bere ordez, Ainara Etxebarria Agorria and.), eta Susana Regidor Lardies and. kontratuaren sail arduraduneko teknikaria (bere ordez, Iñaki Lopez Elordui, Gazteria teknikaria).



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E300029DB000F6X5G5B1M9T2

Sinadurea eta data

SUSANA REGIDOR LARDIES(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 06/08/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/08/2019
08:46:47

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DEK0759
Data: 01/08/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Idazkaria: Mirelur Jorge Astiazaran and. kontratuaren sail arduraduneko administrari laguntzaile (bere orde, Iratxe Barrenetxea Aierbe and.).

POSTUEN AUKERAKETA

Alaiki enpresak eskaera guztien zerrenda osotuko dau eta 2019ko abuztuaren 28an 11:00etan, Gizarte eta Kultura Etxeko hitzaldi aretoan, Bermeoko Udalean kontratazio mahaia batuko da postuak esleitzeko, erispideen arabera. Ekintza hau publikoa izango da.

Puntuazioa bardina lortzen dabenen artean, postuak zozketatuko dira.

Ondoren, onartuen zerrenda eta itxaron-zerrenda argitaratuko dira, Bermeoko udaleko web orrian.

ESLEIPENERAKO PROPOSATUAK: DOKUMENTAZIOA

Postu bat lortzeko, proposatutakoak honako dokumentu honeek aurkeztu behar dabez Alaiki enpresan, irailaren 6a baino lehen:

- * NAN edo IFK
- * Nekazaritza ustiategiaren txartela
- * Produktuaren osasun erregistroa, halan bajagoko
- * Betebehar fiskaletan egunean egotearen ziurtagiria
- * Gizarte Segurantzaren egunean egotearen ziurtagiria
- * Osasun erregistroak egunean eukitzea
- * Erantzunkizunaren zibilaren aseguruaren kopia
- * Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan altan emonda egotea eta egunean egotea
- * Salduko diran produktuak identifikatzea eta euren jatorria bermatzea.
- * Postuak esleitzeko erispideetatik, zinpeko aitortzeen jasotakoak justifikatzeko agiriak.

Aipatutako dokumentuak ez aurkezteak, edota, aurreko atalean aurreikusitakoa zehatz ez betetzeak, esleipenari uko egiten jakola ulertuko da, Herri Administrazioako Administrazio-Jardunbide Arruntaren Legeko 68. artikuluan xedaturikoan izan ezik.

Kasu honetan, kontratazio mahaia bere proposamenean zehaztutako hurrenkera jarraituta, hurrengo hautagaiari errekerimendua bialduko jako gorago adierazitako dokumentuak aurkeztu daizan.

Behin errekerimendua epez eta modu egokian bete dala egiaztatuta, proposamena esleipena egiteko eskumena daukan organora bideratuko da, esleipen erabagia hartu daian.



HIZKUNTZA ERISPIDEAK

1. Azokako postuetan ipiniko diran elementu idatzi guztiak (prezioak, prezio zerrendak, oharrak, kartelak, zein beste edozein idatzizko elementu) euskeraz idatzita egongo dira. Euskerea eta gaztelania biak erabiltekotan, euskereari lehentasun osoa emongo jako.
2. Postuetan, egongo diran pertsonak elebidunak izatea gomendatzen da, eta agurrak eta lehenengo berbea euskeraz egingo dira.
3. Udalaren Itzulpen Zerbitzuaren laguntza teknikoaz baliatu ahal izango dira ekoizleek maila idatzirako ezarritako hizkuntza erispideak beteteko.


TALOEN TXOSNAK

- Udalak taloen txosnak jartzeko baimena enkantera atarako dau Santa Eufemia azokan, 2019ko irailaren 16an, 08:00etatik 23:30ak arte. Baldintza partikularren plegua www.bermeo.eus ikusgai izango dira.

JURISDIKZIO ESKUDUNA.-

Baimenaren interpretazinoari buruz sortutako arazo eztabaidatsuak, esleipen organoak erabagiko dauz, eta horren akordioek, administrazio bideari amaiera emongo deusie eta horreen aurka errekurtsio kontentzioso- administratiboa jarrai ahal izango da, aipatutako Jurisdikzioko Lege erregulatzailan xedatutakoaren arabera, aldeei jagoken beste edozein foruren errenuntzia espresuagaz, aurretik esandakoaren kalte barik, Lege aurrean ikusten dan beste edozein errekurtsio egin daitekeelarik.

Bermeon, 2019ko uztailaren 27an

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	<p>Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E300029DB000F6X5G5B1M9T2</p>	<p>Sinadurea eta data</p> <p>SUSANA REGIDOR LARDIES(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 06/08/2019 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/08/2019 08:46:47</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2019IDA_DEK0759</p> <p>Data: 01/08/2019</p> <p>Lekua: Bermeon</p> <p>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia</p>
---	---	---	---



ERANSKINA
Zinpeko Aitorpena

..... jaunak/andreak,
helbidea duenak
eta NAN zenbakia duenak, bere
izenean edo (ordezkaritzako
ahalmenak adierazi; administratzaile bakarra, ahaldun...) gisa,
.....
.....enpresaren, egoitza soziala
..... eta IFK zenbakia
..... dituenaren izenean,

Nire erantzukizunpean ADIERAZTEN DU:

1. Santa Eufemia azokan postua ipinteko arautzen dauzan Baldintzak ezagutu, onartu eta betetzen dodazela.
2. Administrazioagaz kontratatzeke lege ezarri diran baldintzak betetzen dodazela, leialtasunez, Sektore Publiko Kontratuen 9/2017 Legeak galdatzen dauenaren arabera, eta bertan zehazten diran zehaztapenekin eta baldintzekin.
3. Ez nagoela (eta/edo ordezkatzeko dodan enpresa, administratzaileak edo ordezkariak ez dagozala) kontratatzeke ezelako debeku- eta bateraezintasun-egoeratan; hau da, Sektore Publiko Kontratuen 9/2017 Legeak 71. artikuluan xedatu dauzanetan, bertan zehazten diran zehaztapen eta baldintzekaz.
4. Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean nagoela (eta/edo ordezkatzeko dodan enpresa), indarreko xedapenek ezartzen dauzanetan; eta, orobat, ez dodala (eta/edo ordezkatzeko dodan enpresak) zerga-zorrik ordainarazpen-aldian Bermeoko Udalagaz. Hartara, administrazio-kontratatzaileari baimena ematen deusat, esleipendun proposatuz gero, informazio hori eskura daien, hitzarmenik sinatu dauen beste herri-administrazio batzuen datu-baseen bidez.
5. Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, saldu gura dodan gaiari jagokan epigrafean hain zuzen ere, altan nagoela.
6. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko zigor edo administrazio-arloko zigorra jaso ez dodala.
7. Postua esleitzeko baloratzen diran erispideetatik, hauek daukadazela, postua esleitzuz gero egiaztatuko dodan moduan:
 - a. Jatorria:.....
 - b. Kalidatea:.....
 - c. Sariak:.....
 - d. Bermeoko azokan edota azoka berezietan parte hartzea:
8. Bermeoko Udalari baimena ematen deusat deialdi honi lotutako eskakizun, barri emote eta jakinarazpen mota guztiak posta elektronikoko bidez bidaltzeko behean ageri dan helbidera, legeak ezarritako ondorio juridikoekaz.

Helbide elektronikoa:



9. Era berean, konpromisoa hartzen dot kontratazio-mahaiaren aurrean egiaztatzeko, postua esleitu baino lehen edo Udalak eskatzen deustan bestelako momentuan, legez eta baldintzetan zehazten diran agiriak badaukadazela, eta baliozkoak dirala.

10. Jakitun nagoela autorpen honetan edo autorpenagaz batera aurkezten diran datuetan edo dokumentuetan zehaztasun falta badago, edo faltsutasunik egonez gero, edo zer edo zer aipatu gabe itxi bada, erantzukizun penal, zibil edo administratiboak egon leikezala eta euri aurre egin beharko deusdazela halakorik sumatuz gero.

Eta jagokozan ondorioetarako idatzita jasota gera daiten, adierazpen arduratsu hau sinatzen dot,n, 2019ko.....(r)en....(e)an.

sinadura”.

BERMEOKO SANTA EUFEMIA AZOKA 2019
IZENA EMOTeko ESKABIDEA: POSTUAK



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E300029DB000F6X5G5B1M9T2

Sinadurea eta data

SUSANA REGIDOR LARDIES(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 06/08/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/08/2019
08:46:47

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DEK0759
Data: 01/08/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Izen-abizenak	NAN
Enpresaren izena Ordezkarria	IFK
Helbidea	PK - Herria
Telefonoa	
Osasun-Erregistroa (beharrezkoa balitz)	Nekazaritza ustiategi zenbakia (beharrezkoa balitz)

ATALAK

- | | |
|---|-------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> Barazkiak | <input type="checkbox"/> Pateak |
| <input type="checkbox"/> Frutak | <input type="checkbox"/> Eztia |
| <input type="checkbox"/> Txakolina | <input type="checkbox"/> Txerrikiak |
| <input type="checkbox"/> Gaztaia | <input type="checkbox"/> Besteak |
| <input type="checkbox"/> Ogia – euskal pastelak | |

Produktu honeek neure etxean eginak edo/eta landuak dirala aitortzen dot. Azoka hau arautzen daben baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen dodala adierazten dot. Era berean, baimena emoten dot datu honeek lanbide-alkarteei eta udal agintariei emon ahal izateko, baita argitaratuak izateko be, baina ekoizle bakoitza azokaren esparruan kokatzeko baino ez.

Eguna

Izenpena

LEGE OHARRAK



Datu honeek udaleko informazio sisteman sartuko dira. Tramite honen kudeaketarako baino ez dira erabiliko, eta beste herri-administrazioei itxi edo jakinarazo ahal izango jakez 2016ko Apirilaren 27ko Erregelamenduaren, 2016/679 (EB) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenaren arabera. Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko eskubidea eukiko dabe Bermeoko Udalaren Arreta Zerbitzuan



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E300029DB000F6X5G5B1M9T2

Sinadurea eta data

SUSANA REGIDOR LARDIES(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala) - 06/08/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/08/2019
08:46:47

EXPEDIENTE ::

2019IDA_DEK0759

Fecha: 01/08/2019

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia

